



Ebazpena Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2020ko maiatzaren 18ko, Hezkuntza Saileko Garbiketa eta Sukaldaritzako ordezkogaiei zerrenda urtero birbarematzeko prozedura irekitzen duena.

Ebazpen honek duen helburu: dagoeneko Garbiketa eta Sukaldaritzako zerrendak integratzen dituztenentzat birbarematzeko urteko aldia irekitzea.

2020ko BIRBAREMATZEA

LEHENA. Urtero, birbarematze-aldiarekin bat etorrita, zerrendetan aldaketak sartzeko aukera eskaintzen zaie dagoeneko Sail honen Garbiketa eta Sukaldaritzako zerrendetan dauden ordezkogaiei; halaber, izango dute datorren ikasturteko dei guztiei uko egiten dietela aditzera emateko idazkiak aurkezteko aukera, hori guztia indarreko hitzarmen kolektiboak III. eranskinean xedatutakoaren arabera.

Zerbitzuak dituen pertsonal guztiari bidaltzen zaion aurre inprimatutako fitxan, datu pertsonalak ez ezik, zonalde bakoitzean egiaztatutako zerbitzu-denborak (2020ko apirilaren 16ra arte zenbatuak) eta aukeratutako lanaldiaren erregimena ere ematen dira.

BIGARRENA. Libre egotea. Ordezko gai bakoitzak ixa (x) batez markatu beharko du agertu nahi duen lanaldi osoa edota partziala, zerbitzuak dituen edo ez alde batera utzita, eta, ondorioz, aukeratutako edozein zonaldean eta lanaldi-motatan deitu ahal izango zaio zerbitzuak ematera.

HIRUGARRENA. Uko egitea. Ixa (x) batez markatu beharko da atal espezifikoan agertzen den laukia eta, kasu honetan, ez zaio datorren ikasturte osoan inolako eskaintzarik /deirik egingo. Egoera honetan beste bi urte egon ahal izango da eta, hurrengo bi birbarematzeetan zerrendetan ohiko alta eskatuz gero, egiaztatuta zegoen zerbitzu-denbora berreskuratuko da.

LAUGARRENA. Fitxa entregatzeko epea. Maiatzaren 25etik ekainaren 15era bitartekoa, biak barne.

BOSTGARRENA. Aurkezteko tokia. Lurralde Ordezkaritzetan, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzan, edo helbide elektroniko honetan hezk.sind@euskadi.eus. Fitxa posta elektronikoz aurkeztuz gero, NANaren kopia bat erantsi beharko da.

SEIGARRENA. Aurkeztu gabeko fitxa. Birbarematze honetan berrikuntzarik sartu ez denez, aurrean ez da derrigorrean aurkeztu beharko langile bakoitzari bidali zaion aurrez inprimatutako fitxa eta, ondorioz, aurkeztu ez dutenek jasotzen duten fitxan adierazitako egoeran jarraitu nahi dutela interpretatuko da.

Horregatik guztiarengatik, apirilaren 11ko 79/2017 dekretuak (apirilaren 21eko 76. zk.ko EHAA) 10. artikuluan ematen dizkidan eskuduntzez baliatuz,

EBAZTEN DUT:

Lehena.- 2020. urteko birbarematze-prozesua, Garbiketa eta Sukaldaritzako kolektiboan zerbitzuak egiaztatzen dituzten lan-legepeko aldi baterako pertsonalari dagokiona, irekitzea. Maiatzaren 25etik ekainaren 15era bitarteko epean, biak barne, pertsonal horrek izango du bidaltzen den banakako fitxan aldaketak egiteko aukera. Fitxa berria aurkeztu ezean, 2019ko barematzearen datuak hartuko dira kontuan.

Bigarrena.- Ekainaren bigarren hamabostaldian beste ebazpen bat ematea, 2020/2021eko ikasturtean aldi baterako premiak betetzeko Garbiketa eta Sukaldaritzako zerrendak integratzen dituzten ordezkogaiei zerrenda argitara emateko, zerbitzuak dituen pertsonala birbarematzeko prozesuaren ondorioz, ikasturte horretan.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 18a

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Jon Agirre Huerga

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 83 94 - Fax 945 01 83 35 / 36 - E-mail: huisgesp@ej-gv.es